

## TREBAKUNTZA 2019-11: ERLATIBOZKO DEN EKIDIN (II)

Erlatibozko perpausen ezaugarri nagusia hauxe da: bi perpaus lotu nahi ditugu bi esaldietan **errepikatzen den hitzaren bitartez**. Batzuetan hitz hori agerikoa da, eta beste batzuetan susma daiteke zein den zentzuari begira. Begiratu adibide honi:

*Liburu bat irakurri dut; oso ona iruditu zait.*

LIBURU hitza dago bi esaldietan; beraz, erlatibozkoa erabiltzea zuzena da: *Irakurri duduN LIBURUA oso ona iruditu zait.*

Gaztelaniaz asko erabiltzen da erlatibozkoa, eta, agian, horren eraginez euskaraz ere gero eta gehiago erabiltzen hasi gara. Nolanahi ere, argi eduki behar da gaztelaniaz erlatibozkoen bidez esaten dena ez dela euskaraz derrigorrean erlatibozkoaren bidez esan behar.

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

## OHIKO AKATSAK

1. \* *Itsaso, **Oiartzungoa dena**, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*
2. \* *Iñaki, **jaiotzez azpeitiarra dena baina bihotzez urretxuarra**, ez da askotan ibiltzen Azpeitia aldean.*
3. \* *Salatua, **zeinaren txakurra lotu gabe zebilen kalean**, ez zen konturatu umeak eskolatik ateratzeko ordua zela.*
4. \* *Hautetsia, **zeinaren arreba espetxeratzeko zorian egon ziren ustelkeria kasu batengatik**, arrebaren estilo berekoa dela iruditzen zait.*
5. \* *Itsubaltzetako **Udaleko alkatea den Emilio Gorriaran Urmendarizek dimisioa aurkeztu du arazo pertsonalengatik.***
6. \* ***Bermeoko arraunlaria den Ander Goierrik adierazi du aurten ez dabiltzala iaz bezain ondo.***

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uma.eus](http://www.uma.eus)

7. \* **Udalak emango duen esleipena behar den epearen mugen baitan lortzen duen pertsonak errenta aitortpenaren kopia aurkeztu beharko dio udalari.**

## ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

1. \***Itsaso, Oiartzungoa dena, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.**

Esaldiak gaztelania kutsu handia du: *Itsaso, que es de Oiartzun, trabaja en el Gobierno Vasco.*

“...que es de Oiartzun” esaldiak Itsasori buruzko azalpen bat ematen du. Azalpenezko erlatiboak oso sarri erabiltzen dira gaztelaniaz, eta koma artean joan ohi dira.

Nolanahi ere, euskaraz, bi informazio baditugu, bi esaldi erabili ohi ditugu, “eta” juntagailuarekin lotuta edo zuzenean, “dena” edo antzekoak erabili gabe.

1. *Itsaso, **oiartzuarra**, Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*  
1. *Itsaso **oiartzuarra da, eta** Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*  
1. *Itsaso **Oiartzungoa da, eta** Eusko Jaurlaritzan dabil lanean.*

Gauza bera gertatzen da 2. esaldiarekin. Erlatiboazko “dena” kenduta, esaldia egokiagoa da:

2. *Iñaki, **jaiotzez azpeitiarra baina bihotzez urretxuarra**, ez da askotan ibiltzen Azpeitia aldean.*

Euskaraz, “zeina”, “zeinaren” eta halakoak zuzenak diren arren, ez dira batere argiak eta egokiak, eta, gehienetan, esaldiak beste modu batean idatz daitezke:

3. ***Txakurra lotu gabe zebilen kalean, eta** jabea ez zen konturatu umeak eskolatik ateratzeko ordua zela.*  
4. ***Arreba espetxeratzeko zorian egon ziren ustelkeria kasu batengatik, eta** hautetsia arrebaren estilo berekoa dela iruditzen zait.*

Gauza bera gertatzen da erlatiboazkoak karguekin erabiltzen ditugunean: hobe da erlatiboazkoa erabili baino izen-abizenak eta karguak segidan jartzea.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699

5. *Emilio Gorriaran Urmendariz Itsubaltzetako Udaleko alkateak dimisioa aurkeztu du arazo pertsonalengatik.*

6. *Ander Goierri Bermeoko arraunlariak adierazi du aurten ez dabilzala iaz bezain ondo.*

Horrez gain, euskaraz, ez da komeni esaldi berean erlatibozko bat baino gehiago sartzea. Hartara, erlatibozko asko baldintzen bidez eman daitezke:

7. *Pertsona batek udalaren esleipena behar den epearen mugen baitan lortzen badu, errenta aitorenaren kopia aurkeztu beharko dio udalari.*

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
946 279 195

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943 260 372

Azoka Plaza  
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa  
20734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943 816 699